

URTZI URKIXO

2021.11.23 - 2022.01.23

HURRENGO ERAKUSKETA

barriek 2021

IZASKUN ARALUZEA

2022ko urtarrilaren 25a - martxoaren 27a

rekalde

Alameda Recalde, 30 | 48009 Bilbao
Tel. +34 94 406 85 32
www.salarekalde.bizkaia.eus

Ordutegia

Asteartetik larunbatera: 10 - 14 eta 17 - 20:30
Igande eta jai egunetan: 10 - 14
Astelehenetan itxita

Horario

Martes a sábado: 10 - 14 y 17 - 20:30 h
Domingos y festivos: 10 - 14 h
Lunes cerrado

Opening hours

Tuesday to Saturday: 10 - 14 and 17 - 20:30 h
Sundays and holidays: 10 - 14 h
Monday closed

sarrera doan | entrada libre | admission free



URTZI URKIXO

Erinnerung-Gogoratzen dut

2021eko azaroaren 23a – 2022ko urtarrilaren 23a

Rekalde Aretoa URTZI URKIXOren *Erinnerung-Gogoratzen dut* aurkezten du, **barriek 2021** programaren barruan; programa horrek Bizkaiko Foru Aldundiaren arte plastiko eta bisualetako bekez gozatu duten artistek egindako lanen hautaketa bat erakusten du.

Erakusketan 2020. urtearen hasieratik gaur egunera arte egindako lan-sorta bat ikus daiteke, ardatz komun batekin: eskuz inprimatutako argazkia, paper gaineko serigrafian. Ekoizteko garaia dela eta, obra gehienak Covid-ak eragindako egoeraren aurreko erantzun gisa beha daitezke.

Obrak Berlinen (tailer propioa eta Künstlerhaus Bethanien-eko serigrafia tailerra) eta Bilbon (BilbaoArte Fundazioaren serigrafia tailerra) ekoiztu zituen egileak.

Hainbat sormen-testuingurutatik abiatuta, lanek erro berari buruzko ikuspegi desberdina eskaintzen dute, hau da, zuri-beltzeko argazki analogikoari buruzkoa.

Urtzi Urkixoren lanak prozesu-izaera garrantzitsua du, non bere deribariketa batean aurkitutako lehen materiala abstraituz doan, harik eta oroitzapen abstraktu bihurtzen den arte.

Erinnerung-Gogoratzen dut

Hiri batean bizi naizenez, hiritarra naiz. Denbora eta espazioa partekatzen ditut hiritarren kopuru handi batekin, baina, askotan espazio hori pribatua denez, horren balioa eta nortasuna inposatu egiten da sarri. Emiliano Zapatak esandakoari jarraiki, "lurra lantzen duenarena da", eta, nire ustez, espazioa bertan bizi denarena da, ez fisikoki soilik, baita metaforikoki ere.

Herritarrok gara kale, plaza eta eremu komun horiei guztiei esanahia emateko eta gure bizimoduaren arabera erabiltzeko ardura geure gain hartzen dugunak.

Mapa itxita dago, baina eremu autonomoa zabalik dago. Metaforikoki, kontroleko kartografiarako ikusezinak diren dimentsio fraktalen barruan hedatzen da. (...) Hor eremuak bilatzen ditugu —geografikoak, sozialak, kulturalak, irudizkoak—, eremu autonomo gisa loratzeko indar potentziala dutenak —eta espazio horiek erlatiboki irekita dauden denborak bilatzen ditugu.

Hakim Bey. *Zona temporalmente autónoma*, 1985

Nire lana espazio horiek eraldatzen ahalegintzen da, arlo fisikotik abiatuta nire iruditeriara bitartean. Nire ustez une jakin batean gertatutako errealitate bat irudikatzen duen zuri-beltzeko argazki batetik abiatuta, argazki horretan esku hartzen dudan heinean, daukan informazioa urratu egiten da, oroitzapen abstraktu bihurtzeraino.

Urtzi Urkixo



Urtzi Urkixo bere tailerrean, Berlin

URTZI URKIXO (Bilbao, 1993) Arte Ederretako lizentziaduna da Euskal Herriko Unibertsitatean (2017), eta Berlinen bizi da 2015etik. Han, bere proiektu artistikoa serigrafiako obra grafikoaren editore-lanarekin uztartzen du.

2015ean hasi zuen bere ibilbide artistikoa arte grafikoaren munduan, Berlingo Künstlerhaus Bethanien-eko Gloria Alonso tailerreko irakaslearekin egindako praktika batzuetan. 2017an serigrafian espezializatu zen, A Coruñaeko Betanzoseko Estanpa Garaikideko Nazioarteko Zentroan modulu bat eginez. Harrez geroztik, sormen-gune eta egonaldi artistiko ugarietan lan egin du, besteak beste, Alfara Grafikoan (Salamanca, 2017), BilbaoArte Fundazioan (2015-2021) eta Berlingo Czentrifuga talde artistikoaren tailerrean. Bere obra Rekalde Aretoan erakusteaz gain, Urkixo Grabatuaren Nazioarteko Azokan izango da, La Taller Galeria ordezkari duela.

Gaur egun, artista grafiko gisa duen laneko proiektuarekin jarraitzen du, Berlingo White Grid Gallery-n erakusketa bat egiteko obra-sorta berri bat ekoizten, azken urtea lanak egiten hasi baita galeria horrentzat.